

MAHAI NAZIONALAK NAZIOARTEKO HAINBAT ALDERDI ETA ERAKUNDEREN BABESA JASO DU

Permach: «Gobernuak, HBren aurka jo arren, ez du helburua lortu»

■ Mahai Nazionaleko 18 kide espertxeratu zituztenetik bi hilabete igaro dira, eta, HBko bozeramaileen aburuz, horrekin Gobernuak «HBren lan politikoa eragotzi eta bere jarrera baldintzatu nahi zuen arren, ez du helburua lortu».

Aitziber Yarza / Donostia

JOSEBA PERMACH-EK eta Jone Goirizelaiak, HBko behin-behineko bozeramaileek, prentsaurrekoa eskaini zuten atzo Mahai Nazionaleko 18 kidek bi hilabete «bahiturik» daramatzatela salatze eta epe horretan gertaturikoa aztertze. Permachen aburuz, «ezker abertzaleak ekimen politikorako duen gaitasunak Espainiako Estatuak gaituzten du, eta mahaikideak espertxeratu hori moztu nahi izan zuten». Bi hilabeteko epeak ematen duen ikuspegiarekin, ordea, Gobernuak ez duela hori lortu uste du HBk. «PPko gobernuak ez du bere helburua lortu, ez baitu HBren jarrera baldintzatu, eta hutsegitea izan da», adierazi zuen Permachek. Baieztape hori egiteko hiru oinarri erabili zituen HBko behin-behineko bozeramaileak. Batetik, «Mahai Nazionala espertxean dagoen arren, erreferente politiko garrantzitsua» dela adierazi zuen Permachek, eta adibide gisa Aberri Egunari begira Mahai Nazionalak EAJ eta EARI egintza deialdia aipatu zuen. «Bestetik, Permachek uste du Gobernuak ez duela «HBren ildoarekin amaitzea lortu, eta HBren ildo politikoa aurrera doa». Azkenik, afera honek «*Alternatiba Demokratikoa* gizarteratzen lagundu» duela uste du HBko buruak.

Gerry Adamsen eskutitza Aznarri • Ildo beretik, Jone Goirizelaiak esan zuen «Espainiako Estatuaren beste helburu bat nazioartean mahaikideak espertxean delituategatik daudela



Jone Goirizelaia eta Joseba Permachek mobilizazioak iragarri zituzten hilabete honetarako Mahai Nazionalaren espertxeratzearren aurka.

JUAN HERRERO / EFE

plazaratzea» izan dela. Ordea, hori ere ez duela lortu deritzote HBko kideek, eta hori azaltzeko Mahai Nazionalak jasotako atxikimenduak aipatu zituzten. Goirizelaiaren aburuz, «atzerrian argi geratu da Mahai Nazionaleko kideak iritzia emateagatik daudela kartzelan eta delitu bakarria *Alternatiba Demokratikoa* zabaltea izan dela».

Atxikimenduei dagokienez, nazioarteko 50 alderdi eta elkar-terren babesa jaso du HBko Mahai Nazionalak. Babesa eman duten alderdien artean hauek daude: Alemaniako PDS eta Berdeak; Irlandako Sinn Fein; Flandriako Volkunie; Portugalgo UDP, Berdeak, Alderdi Komunista eta al-

derdi sozialistako diputatu batzuk; Danimarkako koalizio gorri-berdea; Kataluniako ERC eta abar. Erakundeen artean, berriz, aipatzekoak dira Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusia, Genevako AI, NBeren Giza Eskubideen zentroa, NBeko adierazpen eta iritzi askatasunari buruzko esataria, Herrien Eskubideen Liga, Gurutze Gorriko Nazioarteko Batzordea eta abar.

Gerry Adams Sinn Feineko buruak Jose Maria Aznar presidenteari igorri eskutitzaren zati bat irakurri zuen adibide gisa Goirizelaiak. Eskutitzean Adamsek dioenez, «gertaera hori Afrikan edo Hego Amerikan

izango balitz, alarma eragingo luke nazioarteko komunitate demokratikoan», baina Europako herri batean gertatu denez, gure berehalako erreakzioa sinesgaitz izatea eta protesta azaltzea da».

Mobilizazioak apirilean • Mahai Nazionaleko kideen egoera salatze eta *Alternatiba Demokratikoa* zabalteko lanean jarraituko duela iragarri du HBk, eta horretarako apirilean, besteak beste, mahaikideen herri guztietan manifestaldiak egingo dira. Asteburu honetan mobilizazioak Donostia, Tafalla, Erandio, Santutxu eta Agurainen izango dira.

Espertxeratuaren komunikazio arazoak

ESPERTXEAN diren 18 mahaikideek beste eskual presoek jasaten duten egoera bera pairatzen dutela adierazi zuen Jone Goirizelaia, eta batzuk «oraindik ere egoera gogorragoan» daudela salatu zuen.

Mahai Nazionaleko kideak zazpi espertxetan daudela azaldu ostean, euren artean eta beste presoekin ere ezin dutela hitz egin salatu zuen. Goirizelaia HBko buruek beste presoekin komunikatzeko dituzten

arazoak azpimarratu zituen, eta adibide batzuk eman zituen. Esaterako, Juanpe Plaza eta Juan Mari Olano egun bakar-tuta daude, meza baino lehen beste preso batzuekin hitz egiten ari zirela funtzionarioek hartu eta isolamendu ziegatan sartu baitzituzten. Goirizelaia gogor kritikatu zuen hori, «ez baitakite zergatik dauden isolamenduan, ez dago arrazoi juridikorik, beste presoekin hitz egitea ez baitago debeka-

tua». Halaber, Mari Jose Andueza modulo batean bakarrik dagoela azaldu zuen Goirizelaia.

Bestelako komunikazioetan ere oztopo handiak dituzte. Mahaikideek komunikazio guztiak interbenituak dituzte eta ez dute ia eskutitzik jaso, postal eta telegrama batzuk soilik. Gainera, telefonoz edo bisitetan euskaraz hitz egitea debekatu diete.

Probokazio eta mehatxuak ere pairatu dituzela adierazi zuen Gori-

zelaiak. Ildo horretan Aozek jarri salaketa dela-medio apirilaren 15ean epailearen aurrean zabalteko deklarazio izango direla gogoratu zuen. Itziar Aizpuruak ere mehatxuak jaso dituela azaldu zuen, eta horregatik ere salaketa aurkeztu dutela iragarri dute. Aizpuruari bera dagoen bezala besteak ere egon beharko lirakeela esan zitzen, eta senitartekoen aurkako mehatxu zuzenak jaso zituen. X

Zabalaren autopsiaren zain dago Eibarko epaitegia

■ AABek eta LABek Estatuari egotzi diote berriro etakidearen heriotza

Erredakzioa / Donostia

JOSU ZABALA etakidearen heriotza ikertzen ari den Eibarko epaitegia autopsiari buruzko txosten idatziaren eta Ertzaintzak zenbait komunikabideri filtratu dizkien azterketen emaitzen esperoan dago oraindik. Litekeena da autopsiaren txostena gaur bertan jasotzea. Zabalaren familia ere txosten horren zain dago, hilotza ikusi ondoren sortutako galderei erantzuten dien edo ez ikusteko. Forntseek Etxarri-Aranazko gaztea bularrean jasotako tiroaren ondorioz hil zela aurreratu zuten ahoz, baina idatzizko txostena jaso arte ez dago jakiterik beste zenbait datu, lokietako markak eta buruko kolpea, adibidez, aztertu dituzten ala ez.

Zenbait komunikabidek polizi iturriak aipatuz argitaratu dutenez, Zabalak bolbora hondarrak zituen eskuineko eskuan, eta gorpuaren inguruan odol arrastoak aurkitu zituzten. Polizi iturrien arabera, horrek frogatuko luke Zabalak gorpua aurkitu zuten toki berean egin ziola tiro bere buruari. Dena den, ez dago prentsari filtratutako datu horien baieztape ofizialik.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta LABek Espainiako segurtasun indarrei leporatu diete Zabalaren heriotza, eta «beste estatu krimen bat» izan dela esan dute. AABen ustez, Lasa eta Zabala, Mikel Zabala eta antzeko hainbat kasuren ondoren «ez dago bertsio ofizialekin sinesterrik». LABen iritziz, erakusten du Estatuak metodo berriekin berpiztu duela guda zikina. X

Elkorok Entzutegi Nazionalen deklarazio nahi du fiskalak

Erredakzioa / Bilbo

JOSE Luis Elkorori deklarazioa har diezaion eskatu zion fiskalak Rafa Diezen auzia daraman Baltasar Garzon jujeari, Espainiako Entzutegi Nazionaleko epaileari. Bestalde, Fiskaltzak bat egin du akusazio partikularra daraman AVTren (Terrorismoaren Biktimen Elkarte) eskariarekin, hau da, Rafael Vera Segurtasunerako Estatu idazkari ohia eta Margarita Robles Barne Estatu idazkari ohia deitzea eskariarekin. Rafa Diezi ETA erakundeari laguntza eman izana egotzi diote, etxean aurkitu zizkionten idazki batzuk zirela eta. Diezek, bestalde, agerian utzi zuten ETAREN eta Espainiako Gobernuaren artean bitartekaritzak lana egin zuela bi alde oniritziarekin. X



Aizarnazabalgo Udala

IRAGARKIA

Aizarnazabalgo Udaltzako, 1997ko martxoaren 14an burututako Batzarrean, "Mateone S.R.2" Sektorearen **Urbanizazio Proiektua**, Jose Javier Uranga Arkitektoa, Patxi Gastaminza Arkitektoa eta Ignacio Uranga Bide Ingenieroak redaktatutakoa lehen aldiz onartu zuen.

Ekainaren 23ko 2.159/1978 Errege Dekretuak onartzen duen Planeamenduko Erregelamenduen 141.2, 138 eta 128.2 artikulua, 3/80 Errege Dekretu Legegilearen 4.1 artikulua eta hauekin bat datozen Legeen arabera, hainbat eguneko epean espediente iragarri dela jakinarazten da.

Aizarnazabal, 1997.eko martxoak 17.
ALKATEA.